



AHOZTAR ZELAIETA
KAZETARIA

EAJko karguen senide harrobia

Azken hamarkadan, EAJk hiru harrobitatik datozen kargu publikoen esku utzi du Eusko Jaurlaritzako sailen kudeaketa. PwC eta Andersen bezalako aholkularitza-enpresetan aritu zen talde bat nabarmentzen da. Beste talde garrantzitsu bat karrerako funtzionarioek osatzen dute. Hirugarren talde baten parte dira burukideak, udal edo foru kargu publiko ohiak, hauteskunde zerrendetako hautagaiak eta haien senideak.

Aspalditik ari dira administrazioan alderdiaren barne-egiturako kideen senideak. Arzalluz EAJko presidente historikoaren seme Asier Arzalluz Bizkaiko Txakolina arautzeko kontseiluko lehendakari izendatu zuten, eta bere emaztea, Isabel Octavio, gaur egun EITBko Komunikazio zuzendaria, Osasun Sailaren Kabineteko zuzendaria izan zen.

Joseba Aurrekoetxea EAJren antolamendu-idazkariaren alaba bat hautatu dute Bilboko Portuan postu baterako. Asier Atutxa burukide ohi, Jaurlaritzako Herrizaingo sailburu ohi baten semea, Bilboko Portuko presidente izan zen. Andoni Ortuzar Euzkadi Buru Batzarraren lehendakaria Bizkaiko Diputatu Nagusiaren Kabineteko buru ohi baten osaba da, Igor Camañoena. Joseba Egibar GBBko lehendakariak bi iloba izan ditu Jaurlaritzako goi-kargu gisa: Eneko Goenaga eta Imanol Goenaga. José Antonio Suso, ABBko lehendakaria, Autogobernuko zu-

zendariarekin ezkondata dago, Begoña Pérez de Eulaterekin.

Jaurlaritzako karguen senideak ere aspalditik ari dira administrazioan. Ardanza lehendakari ohiaren alaba Nagore Ardanza Bilbao PortLab-eko koordinatzailea da, eta horren osaba bat bere garaian Jaurlaritzako goi-kargu izendatu zuten. Legebiltzarreko lehendakaria den Bakartxo Tejeriaren senarra, Joanes Labayen, Jaurlaritzako aholkulari gisa kontratatu zuten. Bestalde, Jaurlaritzako Osasun sailburua den Gotzone Sagarduren senarra, Iñigo Apellaniz, prebentzio zerbitzuko burua da Metro Bilbaon, eta koinata bat, Alfonso Apellaniz, Ertzaintzako prebentzio zerbitzuko burua. Victoria Landa, Ertzaintzaren zuzendaria, Brigada Mugikorren arduraduna izan zen Patxi Lealekin ezkondata dago.

Arantxa Tapia sailburuaren senarra (Julián Flórez) eta Jokin Bildarratz sailburuaren emaztea (Ane Garate) administrazioarentzat lan egiten duten elkartetan ari dira. Urien ahizpak Jaurlaritzako goi-karguak dira. Nerea Urien jeltzidea Osasun sailburuordea da, eta bere ahizpa, Izaskun, Segurtasun saileko Giza Baliabideen zuzendaria. Uriarte anaiak ere goi-kargudunak dira. Jon Uriarte, Ertzaintzaren zuzendari ohi, gaur Justizia Administrazioako zuzendaria da, eta bere anai, Aitor, Joko eta Ikuskizun zuzendaria Segurtasun sailean. ●

Duda-muda



EDU ZELAIETA ANTA
IRAKASLEA ETA
IDAZLEA

Ramadana bukatzeaz zela sortu zen zalantza irakasleen artean: familia musulmana duten ikasle batzuek adierazia zuten, ramadanaren amaieraren ospakizuna zela eta, ez zirela egun horretan joanean gelara. Ekintza horren bidez –aipatu zuen irakasle batek– argi gelditzen da, egun horretan behintzat, erlijioa hezkuntzaren eskubidearen gaitetik dagoela. Beraz, egin dezatela nahi dutena familia horiek, baina nik falta jarriko diet etorriko ez diren ikasleei.

Ezin duzu hori horrela egin –eman zion kontesta zuzena ikasketaburuak–. Izan ere, bada lege bat, Espainiako Erresuma izeneko eremu juridiko honetan, horre-

tarako aukera ematen duena: estatua- ren eta Espainiako Batzorde Islamikoaren arteko lankidetzak-akordioa. Bertan –ikasketaburuak burua ordenagailura biratu– hauxe zehazten da: “Ikastetxe publikoetan nahiz pribatuetan ari diren ikasle musulmanek ez dute eskoletara joan beharrik izango, ez eta azterketak egin beharrik ere, erlijio-jaiegunetan, beren kabuz edo guraso-ahala dutenek eskatuta”.

Eta mudan jarraitu zuen dudak, beste baten ahotik: badakizu lege horrek, edota konkordatuak, zerbait ote dion ikasleak sexu-hezkuntzaz edota hezkidetzaz salbuesteko aukeraz? Zeren eta lehengoan... ●